
EDESTIAK

JAZORIKO BAT

*Ba dira Gabonak, ona emen oporrek
Umiak jarrita, neure inguruan.
Sutonduan gagoz, ta danak batera:
!Amama oin ipuña, esan kontu bat!
Geure kontu zarrak...
Iturriko ura, otza, gardena;
zeure tantakadak, landaran ganian,
lur barrutik urten, ta egunen argiaz,
disdiratsuak!
Eztago konturik, gaur edestia!
Geure artian dagoz gizon apa!-onak
urre-biotzdunak, lengo denporan
sarri egin ebenak gauza arrigarriak.
Auxe da ardao zarra,
zanetatik bero, ta biotzan sua
egitekoak.*

- - L

*Euzko Gudaritza, prantzesen artian
doixtarren aurka, barroka gogorran
ibilli ziran.
Batzutan ganetik, bestetzutan galdu,
jazoten dan lez, edozein gudan.*

* * *

*Doixtar-eskuetan, jausi Ordoki Jauna,
ta eriotz epaya emon eutsena.
Ba daruaz batzuk, ilteko mendian.
Euskuak lotuta, kateaz, atzian.
Polondarra izan bere laguna.
Doixtarrek atzian ondo armaruak.*

* * *

*Bidia estututen zan
amilka ganian igaro ziran.
¡Igesi egin daigun! geuriak diñotso.
Bestiak gurago eban iltia.
Amilkatik bera burua bota eban
geure gudariak.
Doixtarrek luzaro tiro ta tiroka
tontorren ganetik, ibilli ziran.
Azkenez, juan ziran; ezebez mobitzen
ezeben ikusten. 11 zalakuan, baduaz aurrera.*

*Iru egun igaro, egunak ta gabak.
Eskuak lotuta, odolez beterik
Jo-zauritua.
Bedarra janari, baita ura edari
ba eukan mendian.
Azkenez artzain bat arkitu
ta azkatu. Zauriak osatu.
Gogortu atzera.*

* * *

*Ori jazan eban gure gudariak.
Ori edestu eustan Ordoki jaunak.
Orixe izan zan frantzitar aldian
Euzko Gudaroste, Buruzagia.*

UTARSUS

ABESTU BILBORI

*Gora ta gora betiko
goratu txalo berotan
Bilbo jaioa euskeldun
lbaizabalen ertzean.*

* * *

*Txiki lenengoz, auzoa,
aundituaz gizarditan
Begoña, Deustu, Abando
artuz bere magalpean.*

* * *

*Aberats ebazalako
meatz ugari menditan
Konsuladoz, era askotan
indartsua itxasotan.*

* * *

*Jakitunen jaioterri
ezagun mundu guztian
bere entzute ortik dabil
gizakien agoetan.*

* * *

*Arriaga gazte azkar
Miragarri eresitan;
Iturribarria or da
biotz bigun olerkitan.*

* * *

*Unamuno pilosofin
beti zorrotz gogaketan;
Arana Goiri gorena
euskera ta politikan,*

* * *

*Aneika bertan gizonak
jakintzu mota guztitan
zenbat diran gizon orreik
ezin edestu itzetan.*

* * *

*Anei ta anei lantegi
ibaiaren bi aldean
langilleak eten бага
Bilbotarrak goian goian.*

* * *

*Emengo gizonen biotz
ondraua dala benetan
zintzo ta argi egiaz
emengo artu emonetan.*

* * *

*Aurrera beti Bilbotar
eziñik ez da zuregan
Begoñako Andra Marin
magalpe eta oñetan.*

* * *

*Euskaldundu zaiz guztiro
zure sustraiak loratan
Gora ta gora betiko
Bilbo nire biotzean.*

GALLASTEGI